


deba

berri

Debako udal aldizkaria - Revista municipal de Deba



ELIZBURU PROIEKTUA

Martxan dira
babeseko etxebizitza tasatuak

En marcha las viviendas
de protección tasadas

© Argitaratzailea/Edición: Debako Udala

Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.

Ale kopurua/Ejemplares: 2200

L.G./D.L.: SS-918-2012

Urte bukaera aurrean aurkitzen gara, gozatzeko egunak, familiak elkartzeko, Olentzero, Erregeak, kirola, bidaiak.... Guk ere herritar guztioi egun alai eta zoriontsuak opa dizkizuegu.

Urte Berri On, gehienok erabiltzen dugun esaldia izaten da, denok gure baitan sentitu eta nahi duguna.

Urtea bukatu eta berria hastearekin batera, legealdia ere amaierara iristen ari da. Hasierako proiektu eta asmoak, lortutako emaitzen eta aldaketen parean jartzeko unea ere iristen ari da.

Aldaketarako bi ardatz ezarri genizkion gure jardunari.

Lehena, denboran utziak zeuden lanak amaitzea: kirol-degiaren berrikuntza, futbol zelaiaren azken faseak egitea edo Elizburuko proiektua gauzatzea besteak beste.

Bigarrena, aurkeztutako programa herritarron parte-hartzea indartuz gauzatzea: herriko plan estrategikoa, kirol elkarten mahaia, kultur gida, Itziarko auzo udala, arte eskolaren etorkizunari buruzko hausnarketa, Osioko antolaketa, Euskal Jaiaren ospakizunak, turismoaren bultzadarako ekimenak, hondakinen kudeaketarako sistema,...

Asko izan dira ahaleginak, adostasunak eta desadostasunak. Parte-hartzeak eztabaida dakar eta eztabaidak lanak modu zorrotzagoan egitea, ondo egindakotik ikasi eta gaizki egindakoak zuzendu beharra.

Bidea egiten hasiak gara. Herritarron parte-hartzetik herritarrok erabakitzerainoko pausoak urratzen jarraitzeko garaian gaude.

Udalean hainbat proposamen ditugu. Zurekin batera egingo dugu urte/herri berri hobe bat.



Nuevamente nos encontramos ante el final de un año y el comienzo de otro nuevo, época de días de reencuentro familiar, Olentzero, Reyes, deporte, viajes... Con este motivo, desde este Ayuntamiento, queremos desear la mayor alegría y felicidad a todos/as nuestros/as convecinos/as.

Está llegando el momento de poner en la balanza los proyectos y objetivos del principio, con los resultados y cambios obtenidos.

Nuestro compromiso se basaba en dos ejes fundamentales.

El primero, la finalización de proyectos parados por diferentes motivos; entre otros, la fase final del campo de fútbol (vestuarios), la renovación del polideportivo, el proyecto Elizburu y la reactivación de la construcción de viviendas tasadas.

Y el segundo, desarrollar nuestro programa reforzando la participación ciudadana en los distintos programas e iniciativas, como por ejemplo el plan estratégico para el municipio de Deba, la mesa de entidades deportivas, la guía cultural, la entidad local menor de Itziar, el futuro de la escuela de arte, la modificación de las Normas en Osio, la Euskal jaia, la potenciación del turismo, la gestión de los residuos...

Muchos han sido los esfuerzos, muchos los acuerdos y los desacuerdos. La participación lleva consigo la discusión de diferentes puntos de vista y el debate nos hace trabajar de una forma más rigurosa, aprendiendo de lo bien hecho y a su vez, corrigiendo los errores habidos.

Se hace camino al andar y vamos caminando. Estamos en tiempos de ir dando pasos desde la participación a la toma de decisiones junto con los/las vecinos/as.

El Ayuntamiento se encuentra en fase de propuesta de nuevos proyectos. Junto con los tuyos, tendremos un año y un Deba mejores.

Urte berri on!!

Udalak kiroldegiko zerbitzuak bermatuko ditu

Aurreko udal errebistaren alean, kiroldegiaren eraberritzeko lanen berri eman zen, egingo diren obrak azalduz: batetik, eraikuntzaren oinarrizko birgaitzea egiteko, eta bestetik kirol-gune eta zerbitzu berriak sortzeko.

Eraberritzeko aurrekontua 1.072.000 +BEZ (225.000) euroekin atera zen lehiaketara 2014ko uztailak 30 datarekin, eta 8 enpresa aurkeztu eta pleguetan ezarritakori jarraituz, 2014 urriak 30-eko Udal plenoak, Construcciones Amenabar S.A-ri esleitu zion 713.378,17+ BEZ (149.809,41) euroko prezioan.

Lanak azaro bukaeran hasi eta 5 hilabeteko epea izango dutela aurreikusten da.

Kiroldegiaren eraberritze lanak dirauten bitartean kiroldegia itxita egongo da. Hala ere, kiroldegiko zerbitzuen hartzaileek ahalik eta kalterik txikiena izan dezaten, kirol saioak beste leku batzuetan eskainiko ditu Udalak. Ondorengo koadroan ikus dezakezue.

KIROLDEGIKO IKASTAROAK (obrak iraun bitartean)

GOIZEKO SAIOAK eta ARRATSALDEKO SAIOAK

SAIOA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	Prezioa
PILATES	Astelehena Asteazkena	10:45-11:45 / 15:00-16:00	Agirre Jauregian	30€
3. ADINA-GIMNASIA	Astearte Osteguna	10:45-11:45	Agirre Jauregian	Doan
MULTIFITNESS	Astearte Osteguna	9:45-10:45 / 15:00-16:00	Agirre Jauregian	26€
CICLING	Astelehena Asteazkena	9:45-10:45	Osion (2. solairua)	30€

ARRATSALDEKO SAIOAK

SAIOA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	Prezioa
PILATES	Astelehena Astearte Asteazkena Osteguna	19:00-20:00	Luzaro Ikastetxean	30€
MULTIFITNESS	Astearte Osteguna	18:00-19:00	Luzaro Ikastetxean	26€
FIT-BOX	Astelehena Asteazkena	20:00-21:00	Luzaro Ikastetxean	26€
CROSS-FIT	Astearte Osteguna	20:00-21:00	Luzaro Ikastetxean	26€
CICLING	Astearte Osteguna	19:00-20:00 / 20:00-21:00	Osion (2. solairua)	30€
JUDO	Astearte Osteguna	16:15-17:00 / 17:00-17:45	Osion (2. solairua)	22€
GAZTE KIROLA	Astelehena	16:15-17:00	Osion (2. solairua)	10€

Udalak eskerrak eman nahi dizkie Debako bi ikastetxeei (Luzaro eta Mendata), Gure-Kai dantza taldeari, Sare Elkarteari eta Amaiak-Bat F.T.ri kirol saio hauek euren egoitzetan eman ahal izateko, erakutsi duten eskuzabaltasunagatik.

UDALAK ABENDUAN ONARTUKO DU DATOZEN LAU URTEETARAKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKO BERRIA



Hauek izango dira planaren lerro nagusiak:

- 1) Transmisioa indartzea. Goitik beherako harremanetan eta harreman horizontala. Hau da, familian eta eskolan, baina baita adinkideen artean ere.
- 2) Euskalduntze-alfabetatzea sustatzea; erdal elebakarrak elebidun pasiborako urratsa eman dezaten saiatzea.
- 3) Udala euskalduntzen joatea. UEMAren irizpideei jarraiki, urratsak ematen jarraitzea.
- 4) Merkataritzan euskararen erabilera areagotzeko laguntza eskaintzea.
- 5) Euskarazko aisialdi berria eskaintzen joatea eta lehendik dagoena hala eskaini dadin ahaleginak egitea.
- 6) Euskal kultura plazaratzea herritarren sorkuntza bultzatuz eta eragileen inplikazioa bilatuz.
- 7) Euskaraz bizi nahi dutenak ahalmentzea, euskararen erabilera prestigiatzea.
- 8) Komunikazioa hobetzea, teknologia berriak erabiliz horretarako.

Lerro horien lanketarako, ekintza desberdinak burutuko dira lau urteotan zehar, euskalgintzan dabilzan hainbat eragile eta enpresarekin elkarlanean: ikastetxeak, guraso elkarteak, euskaltegia, Zuhatza euskara elkarte, Zehar heziketa programak Soziolinguistika klusterra,... eta baita herriko norbanakoak ere.

Urteroko planak Euskara eta Hezkuntza Batzordean eztabaidatzen dira. Batzordea irekia da eta edonork parte har dezake. Batzordekide guztiek dute proposamenak eta iritzia partekatzeko eskubidea; beraz, batzordean parte hartzeko gonbitea egin nahi diogu hala nahiko lukeen edonori; batzordearen onespena jasotzen duten ekimenak Tokiko Gobernu Batzarrera joaten dira, hark, behin betiko onarpena eman diezaien.



Hemendik aurrera

deba • eus



euskaraz gara!

Gazteen euskararen erabilera

Gazteen euskararen erabileraz hitz egiten dugunean, eskolari jarri ohi diogu eragin ahalmenaren pisu nagusia izatea eta hortik nekez uler daitezke gizartean antzematen ditugun portaerak.

Jone Miren Hernández antropologoak neska-mutikoen bizitzan aisialdiak duen garrantzia nabarmendu, eta gazteen eta euskararen arteko harremanen konplexutasunez hausnartzeko, neska-mutikoen gaitasunari, praktikari eta emozioei erreparatu beharra mahaigaineratu izan du.

Bestalde, “Erabileraren GPS-a” liburuxkan ageri denez, hiru motatako faktoreek eragiten dute gazteek euskaraz egitea: 1) neska-mutikoen hizkuntza jatorria (gaitasuna, haurtzaroko erabilera ohiturak, jarrerak, talde atxikimendua). 2) gaztetxoek ingurune hurbilari dagozkionak (beren inguruko harreman sareetan zer hizkuntzetan egiten den, euskara eta egoera soziolinguistikoa nola hautematen duten); eta 3) gizartearen alderdi makrosoziolinguistikoei dagozkienak (gizarte eredu eta erreferenteak, testuinguru politikoa, kontsumo eskaintza, input mediatikoa). Hau da, gaztetxoek beren artean euskaraz egin ala ez faktore askoren ondorioa da.



Hori guztia kontuan izanda, oinarrian hitza izango duten esperientzia gustagarriak zein bizipen emozionalak eskaintzea izan da aisialdi berri honen helburu nagusia; baita, arlo informalean euskaraz komunikatzeko trebetasunak garatzea ere.

Udalak, Mogel Guraso Elkarateak eta Zubi Guraso Elkarateak elkarlanean eskaini dugun aisialdi berri honen barruan, honako taldeak sortu dira gaztetxoek artean: 14 kideko antzerki taldea; 14na kideko sukaldaritzako 2 talde; eta 30 bat neska-mutileko kuadrillategiko 3 talde. Nagusien artean, berriz, 12 kideko antzerki ikastaroa antolatzea lortu da abendu arte. Esan, era berean, joan den urtean hasitako gazteen bertso eskolak aurrera jarraitzen duela, nahiz eta modu autonomo eta autogestionatu batean ari den.

Lastima izan da, azkenean, irakurle taldea osatu ez izana. Kide baten faltan, aurrera egin ezinik geratu den jarduerak da. Dena den, datorren urtean saiakera egingo dugu, aurtengoekin jarraitu eta berriak sustatu nahian.

Oinezkoen pasabideetan segurtasuna bermatzeko ekintzak

2012ko irailean errepidean gertatutako harrapaketa ondoen, eta oinezkoentzako arrisku egoera bat baino gehiago zegoela kontuan hartuta, egoera horiek konpontzeko moduak aztertzen hasi ginen. Prozesu luze baten ondoren, urte honen amaiera aldera semaforoak eta argizko seinaleak ipiniko dira punturik arriskutsuenetan. Elementu horiek guztiak Foru Aldundiak finantzatzeko ditu eta obra zibila udalak hartuko du bere gain.

Hauek dira puntuak:

- **ESTALITAKO PASEALEKUAREN AMAIERAKO OINEZKOEN PASABIDEA.**

Semaforo multzo bakar modura hartuko da Portu kalearen amaieratik zumardiaren hasierara bitarteko zatia; horrela, oinezkoek segurtasun osoz pasa ahal izango dute errepidea zati honetako bi zebrabideetan, oinezkoak, errepidean doazen ibilgailuak eta Gudari plazatik zein geltoki zaharretik sartzen diren ibilgailuak erregulatuta eta kontrolatuta egongo dira eta.



ACCIONES PARA LA SEGURIDAD PEATONAL

Tras el atropello habido en la travesía en septiembre de 2012, así como por algunas situaciones de riesgo para los peatones, se comenzó a estudiar la forma de solucionar este tipo de situaciones. Tras un largo proceso a finales de este año, se van a instalar semáforos y señales luminosas en tres de los puntos más conflictivos, corriendo a cargo de la Diputación Foral de Gipuzkoa la instalación de todos estos elementos, mientras que el Ayuntamiento se hará cargo de la obra civil.

Los puntos de actuación serán:

- **PASEO DE PEATONES AL FINAL DEL PASEO CUBIERTO.**

Se tomaría como un único conjunto semafórico el tramo comprendido entre la desembocadura de la calle Puerto y el comienzo de la alameda, pudiendo atravesar los peatones con total seguridad en los dos pasos de cebra que se encontrarán en este tramo, al estar regulados por semáforos, tanto el paso peatonal como el control de paso de los vehículos que circulan por la travesía, así como de los que se incorporan a ésta desde Gudarién plaza y Estación Vieja.

- **HONDARTZA 15eko OINEZKOEN PASABIDEA (sarrera Ifar kaletik).**

Ipiniko den semaforoak sakatzekoa edukiko du, oinezkoak zumardira errazago pasa daitezzen.



- **PASO PEATONES HONDARTZA 15 (acceso desde Ifar kalea).**

Se va a instalar un semáforo con pulsador para facilitar el paso peatonal a la alameda.

- **HONDARTZA 23ko OINEZKOEN PASABIDEA, MIRAMAR HOTELA.**

Toki honetan semaforoa ipintzeak dakartzan zailtasun teknikoengatik zein kostu handiengatik, argi dizdizaridun seinalea ipiniko da bolbora bihurgunean, oinezkoen pasabidea hurbil dagoela ohartemateko.



- **PASO DE PEATONES HONDARTZA 23, HOTEL MIRAMAR.**

Debido a las dificultades técnicas que entraña instalar un semáforo en este lugar, así como por sus elevados costes, se procederá a instalar una señal luminosa destellante en la curva de la revuelta de pólvora, que advertirá de la proximidad de un paso peatonal.

Elorriagako begiratokia, erabat berritua



Elorriagako begiratokia leku ezin hobea da Euskal Kostaldeko Geoparkeko itsaslabar ikusgarriez goatzeko. Deba-Zumaia Biotopo babes-tuaren erdi-erdian, 160 metro baino gehiagoko altueran kokatua dagoen talaia pribilegiatua da. Ikuspegi zoragarriez gainera, balio handiko ondarea jasotzen du paisaia, geologia eta bioaniztasunaren aldetik eta hura ezagutaraztea du helburu. Gure oinen azpian, flyschak 60 milioi urteko historia gordetzen du, geruzaz geruza.

Orain, Elorriagako begiratokia balioan jarri asmoz, Debak, Zumaia eta Mutrikuk osatutako Euskal Kostaldeko Geoparkeak egokitze eta hobetze lanak egin ditu bertan. Ekimena Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta "La Caixa" Gizarte Ekintzaren arteko hitzarmenaren baitan kokatzen da, Geoparkeko Behatokiaren Ibilbidearen egokitze lanei jarraipena emanez.

Hobekuntza-lanen artean, sasiz garbitu da ingurua eta bertako landaredia landatu da, egurrezko lau banku ipini dira eta lurretik altxatuta dagoen egurrezko plataforma bat egin da, itsaslabarren eta, oro har, kostaldearen ikuspegia nabarmen hobetuz. Informazio panel panoramiko bat ere egokitu da bertan. Guztira 25.000 euroko kostua izan du proiektuak.

Elorriagako begiratokia izen bereko atsedenekutik 500 metrora dago eta jende ugari hurbiltzen da bertara, asteburu eta jaiegunetan bereziki. Begiratokia zein atsedenekua Biotopoko ibilbide tematikoen sarean daude, Talaia Ibilbidearen barnean eta kostaldetik igarotzen den Donejakue bidean.

Egin berri diren hobekuntza horiek Elorriagako eremua bertako herritar zein bisitarientzat erakargarri egitea eta Euskal Kostaldeko Geoparkeko flyscha ezagutzera hurbiltzen direnentzat erreferentziatzko gune bihurtzea dute helburu.

RENOVADO EL MIRADOR DE ELORRIAGA

El mirador de Elorriaga es un punto único para disfrutar de una de las más bellas panorámicas de la costa vasca. Está situado en el centro del biotopo Deba-Zumaia, a una altura de 160 metros sobre el nivel del mar. Además de las excepcionales vistas sobre el Cantábrico, el lugar posee un rico patrimonio en cuanto a su geología y biodiversidad.

Con el fin de potenciar estos valores, el Geoparque de la Costa Vasca ha realizado una serie de labores de mejora y adecuación de ciertos puntos, entre ellos el de Elorriaga.

Esta actuación ha sido posible gracias al acuerdo entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el departamento de servicios sociales de la Fundación La Caixa.

Entre las labores de renovación y adecuación de la zona de Elorriaga, destacan algunas actuaciones como la limpieza de la zona, la plantación de especies autóctonas, la colocación de bancos de madera y una plataforma del mismo material que facilita una mejor observación de los acantilados y la instalación de un panel informativo. La realización de este proyecto ha tenido un coste de 25.000 euros.

Bisitari kopurua goranzko bidean



Urtez urte gorantz doa bisitari kopurua Euskal Kostaldeko Geoparkean. Deba, Mutriku eta Zumaiaiko udalerriek osatzen duten lurraldea sendotzen ari da helmuga turistikoa erakargarriaren artean. Udako datuei erreparatuz gero, argi ikus daiteke goranzko joera hori. Ekain eta abuztu bitartean, Geoparkeak eskaintzen dituen bisita gidatuetan parte hartu zuten pertsona kopuruak %48 egin du gora, iazko datuekin alderatuz.

Bisita gidatuez haratago, Deba, Mutriku eta Zumaiaiko turismo bulegoetan ere iaz baino bisitari gehiago jaso dituzte. Ekainaren 1etik abuztuaren 31ra, hiru turismo bulegoetara 42.295 bisitari hurbildu ziren informazio eske, 2013an baino %24 gehiago.

Geoparkea osatzen dugun hiru herrietako bisitarien jatorriari dagokionez, bidaiarien %47 katalanak izan dira, eta ondoren madrildarrak, valentziarrak eta andaluziarrak. Nazioarteko turistak bisitarien %22 izan dira. Herrialdeka, frantsesak izan dira nagusi, eta ondoren alemaniarrak eta holandarrak. Gainerakoak (%31) Euskal Autonomi Erkidegotik etorritako bisitariak izan dira.

Hazkunde handiena, ordea, estatuko turisten artean eman da, %49ko gorakadarekin; nazioarteko turismoak, berriz, %5 egin du gora.

Zentzu honetan, nabarmentzekoa da erromes kopuruaren igoera gure herrian. Deba erreferentzia bihurtu da kostaldeko Donejakue Bidea egiten duten erromesentzat; turismo bulegotik pasa diren bisitari guztien artean herena baino gehiago erromesak izan dira. Datu bat: 2013. urtean 8.733 erromes pasa ziren Debatik; aurtan, urtea oraindik bukatu gabe dagoela, 9.319 lagun izan dira dagoeneko

AUMENTAN LAS VISITAS

Año tras año va aumentando el número de visitas al Geoparque de la Costa Vasca, que se reafirma como un importante destino turístico. Tras observar los datos de este último verano, se ve un ascenso que muestra su reflejo en las visitas guiadas al Geoparque, las cuales han ascendido en un 48%.

Talaia ibilbidea, Debako herriguneraino

Gipuzkoa osoa zeharkatzen duen talaia ibilbideak gure herrian zuen puntu arriskutsua gainditzeko, udalaren eta mendi elkartearen eskaera kontuan hartu du Aldundiak. Beraz, arrisku hau gainditzeko, oinezkoentzako pasabide berria eraiki da N-634 errepidearen gainean, GR-121 Talaia ibilbideari jarraipena ematea ahalbidetuko duena. Talaia ibilbideak Gipuzkoako kostalde osoa hartzen du, Hondarribitik Saturrarana, baina Geoparkeari eta Deba-Zumaia Biotopoari dagokion tarte da, zalantza gabe, ibilbideak duen zatirik ikusgarriena eta bisitari gehien hartzen dituen. Hemendik aurrera, pasabide berri honi esker, oinezkoak seguruago ibiliko dira eta herriguneraino iristea errazagoa izango da. Aldi berean, pasabide berriarekin balioan jarri da Santa Katalina ermita eta haren ingurua. Atsedean hartzeko, paseatzeko eta ikuspegi dotoreez gozatzeko leku aparta da, kostaldearen eta Debako hirigunearen ikuspegi ezin hobea eskaintzen baitu.



Hasta ahora, el paso de la carretera N-634 en las cercanías del mirador de la Salve, era un punto de gran riesgo dentro del recorrido del GR-121. Para evitar este grave problema y atendiendo a las demandas tanto del Ayuntamiento como de la Federación Gipuzkoana de Montaña, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha realizado una práctica pasarela con estructura de madera. Tras su instalación, el viejo problema de seguridad queda ya resuelto.

UDAL EKONOMIA

Jakina da, udalen diru sarrerei eustea gero eta zailagoa den garai hauetan, laguntza asko gutxitu eta inbertsioetarako gaitasuna jaitsi egiten dela.

Aldiz, herritarren eta herriko elkarten beharrak asko handitu dira, eta inbertsioak sustatzeko ez dira urte errazak izan. Hala ere, egin ditugun gestioei esker, bai Foru Aldundiarekin bai Eusko Jaurlaritzarekin, herrian hainbat inbertsio aurrera eramatea eta gure lehentasuneko beharrak asetzea lortu dugu.

Urtea bukatzen ari da, eta urte berria ere bistan da; proiektu eta ekimen desberdinak martxan jarriko dituen hurrengo epealdia.

Hala ere 2015 urtea hasi aurretik garrantzitsua da 2014. urteari errepasoa ematea, eta urteko aurrekontuen kitapena egitea, herritarrek udal ekonomiaren berri izan dezaten.

Hauek guztiak kontuan hartuta, 2014ko azaroan dugun aurreikuspena ondorengoa da.

SARRERAK	Aurrekontuak	Igoerak	Aurrekontu definitiboak	KITAPENA azaroa
OPERAZIO ARRUNTAK	6.572.904	150.789	6.723.693	6.686.422
1.Zerga zuzenak	2.174.619		2.174.619	2.216.173
2.Zeharkako zergak	30.000		30.000	32.655
3.Tasa eta bestelako sarrerak	1.042.410		1.042.410	1.041.288
4.Trasferentzia arruntak	3.278.365	150.789	3.429.154	3.362.281
5.Ondareen gaineko sarrerak	47.510		47.510	34.025
KAPITAL OPERAZIOAK	104.400	2.157.320	2.261.720	80.272
6.Inbertsio errealeen besterenganaketa	86.400		86.400	
7.Kapital transferentziak	12.000	750.000	762.000	
8.Aktibo finantzieroen aldea	6.000	1.407.320	1.413.320	80.272
9.Pasibo finantzieroen aldea			0	
SARRERA GUZTIAK	6.677.304	2.308.109	8.985.413	6.766.694

GASTUAK	Aurrekontuak	Igoerak	Aurrekontu definitiboak	KITAPENA azaroa
OPERAZIO ARRUNTAK	6.196.475	160.000	6.356.475	5.537.135
1.Lagileen gastua	1.897.689		1.897.689	1.692.892
2.Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak	3.418.685	160.000	3.578.685	3.121.134
3.Gastu finantzierokoak	37.900		37.900	31.909
4.Transferentziak	842.201		842.201	691.200
5.Ondareen gaineko gastuak				
KAPITAL OPERAZIOAK	480.828	2.148.109	2.628.937	1.103.155
6.Inbertsio errealak	133.528	2.026.369	2.159.897	676.322
7.Kapital transferentziak				
8.Aktibo finantzierokoak	6.000	80.000	86.000	78.694
9.Pasibo finantzieroen aldea	341.300	41.740	383.040	348.139
GASTUAK GUZTIRA	6.677.303	2.308.109	8.985.413	6.640.291

Ekitaldi honetan, sarrerak gastuen gaineretik doaz, aurreikusitakoak betez.

Aurrekontu igoerak, egin diren kreditu aldaketa desberdinak dira, eta estrategikoak diren inbertsioak burutzeko izan dira. 6. kapituluari jasotzen diren gastu igoerak, sarreretan 8. kapituluari jasotako kredituarekin (altxortegiko gerakina) eta 7. kapituluari kapital transferentziekin berdinduko dira.

- Buru Gorriren erosketak: 390.000€
- Kiroldegiko obra: 1.298.027€ (adjudikazioa: 863.187,58€-tan).
- Kiroldegiko makinak: 91.022€
- Arte grafikoen egoitzaren egokitzapena: 247.319€ (adjudikazioa: 201.788€-tan)


Kiroldegiko obrak eta arte grafikoen egoitzaren egokitzapenerako, Gipuzkoako Foru Aldundiak 750.000 euroekin lagundu du, eta sarreretako 7. kapituluan jasotzen diren kapital transferentziak dira.

Gastuetako beste kapituluetak igoerak, langileen 2012ko aparteko pagari ordainketak, aurrerapenei, fondo foralaren itzulketei eta kiroldegiko kudeaketaren bi hilabeteko gastuei dagozkie. Hoiek sarreretan 4. kapituluan azaltzen den fondo foralaren igoe-rarekin ordainduko dira.

2015. urteari begira, udala aurrekontuen lanketan ari da, eta abenduan zehar batzordeetan proposamena egingo da, ekarpenak jaso, eta ogasuneko batzordean eztabaidatu ondoren, udalbatzara eramango dira onartuak izan daitezzen.

Hurrengo urterako proposamen nagusiak ondorengoak dira:

- Gizarte ekintza helburu duten auzolan proiektuak, elkar-tasun proiektuak eta laguntzak bultzatu eta indartzea.
- Familietan eta neska-mutilen aisialdia euskararen erabilera bultzatzea ea euskarazko kultur sortzea.
- Kultura balioan jarri, gure herriko memoria historikoa berreskuratu eta elkarte ezberdinekin kultur eskaintza indartzea.
- Auzokonpostarekin jarraitu eta gure herrirako hondakin sistema aukeratzeko prozesu partehartzailea martxan jartzea.
- GEOPARKEaren apustuan, landa eremuan, KARST-a indartzea.
- Aisialdirako kirola, eskola kirola bultzatzeaz gain, herri kirolak eta osasunarentzat onuragarria den ibilketa nordi-koaren proiektua indartu eta elkarteei laguntzak gehitzea.
- Hirigintzan, Elizburu eta Osio martxan egonik, aparkalekuen proiektua gauzatzeko prozesuan jarri eta hilerriaren proiektuaren lanketa hastea.
- Auzoen nahiari erantzun eta Debarekin elkarbizitza sendotuko duen auzo udala eraikitzea.
- Herriari erantzungo dioten obra txikietan, Miramarren txukunketarekin bukatu, zezen plazaren egokitzapenarekin jarraitu, kartelentzako panelak ipini, eta argitegiaren hobekuntzak, irisgarritasunerako obrak eta beste zerbitzuak kudeatzea.



En momentos tan duros como los que estamos viviendo, se hace difícil mantener los ingresos y conseguir nuevas vías para ayudas y subvenciones. Por el contrario, las necesidades de nuestro pueblo y de la ciudadanía en general siguen lógicamente en aumento.

A pesar de ello, gracias a las gestiones realizadas con la Diputación Foral y el Gobierno Vasco, han ido saliendo adelante un buen número de proyectos considerados como estratégicos (vestuarios de Errota-Zar, albergue de peregrinos, renovación del polideportivo, compra del Burugorri, reforma del edificio de Artes Gráficas...). Con vistas al próximo ejercicio 2.015, el Ayuntamiento de Deba, a través de distintas comisiones, está ya trabajando en el estudio de las necesidades existentes para incluirlas en los nuevos presupuestos.

Las propuestas más importantes para este próximo año van dirigidas a reforzar los proyectos con un objetivo social, algo normal en una situación de crisis como en la que estamos inmersos. Impulsar la utilización del euskara en las familias, así como en los espacios y tiempos de ocio de los niños y niñas, es otro de los objetivos fundamentales.

La recuperación de la memoria histórica, el seguir apostando por el compostaje comunitario, la puesta en marcha de un proceso de participación ciudadana para la elección de un sistema de recogida de residuos, desarrollar la zona rural del Geoparque (Karst), impulsar el deporte escolar y de ocio, potenciar el deporte rural y el Nordic-walking, son otros apartados a los que se va a dar especial interés.

Una vez puestos en marcha los proyectos de Osio y Elizburu, continuaremos con el proyecto referente a los nuevos aparcamientos situados junto al polideportivo y la realización de un estudio sobre el nuevo cementerio. Asimismo, daremos respuesta a las necesidades de los barrios y construiremos una Entidad Local Menor que reforzará la convivencia con Deba. Finalmente, el adecentamiento del solar del hotel Miramar, la adecuación según normativa de la plaza de toros, la colocación de paneles para la colocación de carteles publicitarios y mejoras en la iluminación de las calles, formarán parte de nuestras propuestas.

Burugorri, auzolanean proiektua eraikitzen



Sei hilabete igaro dira udalak Burugorriko eraikina erosi zuenetik.

Ordutik, zertan ari dira Itziarren? Kopraixetan taberna ireki zen; auzolanean berau txukundu eta festetan zabalik egon zen, festetako giroa indartzeko eta bertan ateratzen zen dirua eraikinean erabiltzeko. Ondoren, udako oporrak igarota, asanblada egitea pentsatu zen eraikina ikusi eta aurrera begira zer egin pentsatzeko. Bertan berrogei bat lagun elkarturik, talde motor bat sortzea erabaki zen, pixkat ideiak antolatu eta aurrera begirako pausuak antolatzeko.

Eraikineko ganbara hustu, eta bertan zeuden trasteak atera dira auzolanean, horrela, udaleko aparejadoreari egin beharreko egokitzapenak aurreikusteko lana erraztuz.

Jardineko sasiei ere garbitu ederra eman zaie, pixkanaka itxura aldatuz. Ideia desberdinak hartzeko, Gernikako Astra eraikineko lagunekin egon da, baita Pasaiaokekin ere... ideia ezberdinak entzun eta gero bertan ditugun beharren arabera antolatzeko. Aparejadorearekin batera, itxura ematen ari zaio eraikinari: ganbaran gimnasia eta aerobik egiteko gunea joango da; etxebizitzan ikastaro, bilera ..., gauza ezberdinak egiteko txokoak.

Orain arteko jantokietan, gela polibalenteak: antzerki, hitzaldi, ikastaro eta horrelakoetarako... beheko solairuan udal bulegoa eguneroko tramiteetan laguntzeko; eta ondoan, taberna, udalak deialdi publikoaren bitartez esleitzea aurreikusten dena.

Herritarrei eraikina erakutsi eta ideiak jasotzeko asmoz, **abenduaren 19an ostirala, eta 20an larunbata**, ateak zabalduko dira, auzolanean eman diren pausuen berri emateko eta aurrera begira zer egin herritarren ideiak jasotzeko.

EN MARCHA LAS OBRAS DEL EDIFICIO “BURUGORRI”

Han transcurrido ya seis meses desde que el Ayuntamiento compró en Itziar el edificio conocido como Burugorri.

Durante las pasadas Kopraixak se utilizó la taberna, previo trabajo de limpieza y adecentamiento en Auzolan. Tras el verano se realizó una asamblea para estudiar el futuro del local. En ella se decidió la creación de un grupo motor, cuya función sería la captación de ideas y decidir los pasos que se deberían dar para el desarrollo de un edificio destinado a espacio multiusos.

Los próximos días 19 y 20 de diciembre se realizarán unas jornadas de puertas abiertas, en las que se darán a conocer los pasos dados hasta ahora y recoger posibles nuevas ideas de cara al futuro.

Itziarko Auzo Udala

Guztion artean aurrera egingo dugu

Joan den azaroaren 30ean, Udalak, herri galdeketa batera deitu zituen Elorriaga, Mardari, Egia, Arriola, Itsaspe, Lastur, Arbiskoa, Endoia eta Itziarko kaskoko auzotarrak.

614 auzotarrek hartu zuten parte -errolatutako herritarren %72,3k, eta horietatik, 589 (Auzo-Udalaren eragin-eremuko boto-emaileen %96) agertu ziren Itziar auzo-udal izatearen alde. Emaitzek argi erakutsi dute, beraz, auzotarren borondatea zein den: ia aho batez, auzo-udal moduan eratu nahi dutela adierazi baitute.

Azaroren 30eko iritzi bilketarekin, Debako Udalak eta Itziarko auzotarrek eginak dituzte, dagoeneko, Itziarko Auzo-Udala eratzeke eginbehar guztiak. Orain, auzo-udala osatzeko prozedura administratiboaren azken urratsa egitea falta da, Gipuzkoako Foru Aldundiak auzo-udalaren eraketa onartzea, hain zuzen ere.



Auzotarrek autogobernurako duten nahiari erantzuteko formula egokia da auzo-udalarena, eta bestalde, kontrastatu egin diren txosten teknikoek ziurtatu egiten dute deszentralizazio honek Debako udalerriko biztanleengan ez duela inolako eragin kaltegarriarik eragingo. Are gehiago, Itziarko Auzo-Udalaren lur eremuak Debakoa izaten jarraituko du eta Debako Udalak -orain arte bezala- udalerrri osoari dagokion hirigintza planeamendua egiten jarraituko du. Aldaketa nagusia, hortaz, orain Debako udal aurrekontuetan Itziarko eremura bideratzen diren diru-baliabideak, Debako Udaletik kudeatu beharrean, auzo-udaletik kudeatuko direla da.

Nabarmentzekoa da gaiak herritarren artean piztu duen interesa; horren lekuko da Debako Udalak egitasmoari buruzko informazioa zabaldu eta herritarren zalantzak argitzeko egin duen ahalegina, eta nola ez, gizarte eragileen kanpaina ere, giltzarria izan da herritarrei informazioa helarazi eta parte-hartzea sustatzeko.

Debako Udalaren eta Itziarko Auzo-Udalaren elkarlana ezinbesteko

Auzo-udala errealitate bilakatzeko azken txanpan gauden honetan, Debako Udalak, aurrera begira, honako ideia honetan jarri nahi izan du azpimarra: “Guztion artean egingo dugu aurrera; itziartarrek eta debarrek dituzten beharrei erantzuteko lan egitea da gure konpromisoa. **Debako Udalaren eta sortuko den auzo-udal berriaren arteko elkarlana etengabea izango da eta hori ziurtatzea da, une honetan, gure lehentasunetako bat**”.

El pasado 30 de noviembre, los/as vecinos/as de Itziar fueron llamados/as a una consulta convocada por el Ayuntamiento de Deba. De los/las 614 vecinos/as que participaron en la consulta (un 72,3% de los/as vecinos/as censados/as en los barrios de Itziar), 589 se mostraron a favor de la constitución de Itziar como Entidad Local Menor.

En vista de que los resultados de la votación han sido mayoritariamente favorables -un 96% apoya convertirse en Entidad Local Menor-, es ahora la Diputación Foral de Gipuzkoa la que deberá dar el último paso del procedimiento administrativo para facilitar la creación de la nueva entidad. Esta Entidad es la fórmula adecuada para responder al deseo de autogobierno de los barrios sin perjudicar a los/as vecinos/as de Deba. El Ayuntamiento de Deba, por su parte, ha expresado su compromiso para trabajar en pro de las necesidades de los/as ciudadanos/as de Deba e Itziar. En adelante, la cooperación entre ambas entidades será una de nuestras prioridades y entre todos/as responderemos a las necesidades de nuestros/as convecinos/as.

Bi programa berri eta berritzaile

Gizarte zerbitzuak ongizate estatuaren oinarrietako bat dira, eta bide horretan, gizarte zerbitzuetako departamentuak Debako gizarte ongizatea bilatzen duten bi programa jarri ditu martxan azken hilabeteotan.

• SENDOTU programa

Programa hau, Debako gizarte zerbitzuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrera eramandako ekintza bat izan da, **“tanta bat itsaso handi baten, busti eta mela egiten duena”**.

Baztertuta dauden, bizi esperientzia eta jatorri kultural desberdina duten emakumeei, gune eta tresnak emateko baliabidea izan da.

Aipatu ikastaroan gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak diren 12 emakumek hartu dute parte eta **aniztasuna ezaugarritzat** izan duen talde honek, hainbat gai jorratu ditu:

- Genero indarkeriaren aurkako borroka.
- Estereotipo “madarikatuak” apurtzea.
- Pozoitutako “amodio erromantikoa”.
- Etxeko lanen banaketa.
- Emakume objektuaren aurkako borroka.
- Agerian eta ezkutuan dagoen matxismoa.
- Haur eta nagusien zainketaren ardura.



Emakume talde honek elkarrizketa, eztabaida, eta gai ezberdinak jorratzeko leku bat izatea garrantzitsua izan da, non, erosotasunez eta askatasunez beraien kezka guztiak adierazi dituzten, gaiak partekatu eta ideiak azalaraziz. Elkarrizketa gune honek, partaideen arteko lotura eta falta duten gizarte sarean integratzen izan ditu helburu. Betiko gaiak jorratzeko era desberdin bat.

DOS NUEVOS PROGRAMAS DE SERVICIOS SOCIALES

Los servicios sociales son una de las bases fundamentales de una sociedad del bienestar. En este sentido, el departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Deba ha puesto en marcha dos nuevos programas.

• El primero de ellos, denominado **SENDOTU**, ha estado dirigido a las mujeres en riesgo de exclusión social. En él han participado doce mujeres de diversos orígenes culturales, y se han tratado, entre otros, temas como la lucha contra la violencia de género, la ruptura de estereotipos, el reparto de tareas en el hogar, la lucha contra la mujer objeto o la responsabilidad en el cuidado de niños/as y mayores.

Las participantes han colaborado expresando libremente sus preocupaciones e inquietudes. Se ha logrado con ello el objetivo de este programa: fortalecer la relación entre las participantes y recuperar la falta de relación social de la que muchas de ellas carecían.

• JOLAS TAILERRAK programa

Jolasaren bitartez ikasiz, gaitasun ezberdinak garatzeko gunea da Jolas Tailerra; euskara, eskola ikaskuntza eta gaitasun pertsonal eta sozialak sustatzeko gunea hain zuzen ere.

Udalak 2013-14 ikasturtean martxan jarri duen programa hau Zehar Heziketa eta Programa elkarteak kudeatzen dute eta 6 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendua dago.

Programa honen helburua, arrisku egoeran dauden Debar hurrekin detekzio eta eskuhartze goiztiarra egitea da.

Deban lan egiten dugun instituzio ezberdinen arteko elkarlana bultzatu da, eskolak eta udalak koordinazio sare bat jorratu dute, arriskuan dauden haurren detekzio goiztiarra bultzatuz.

Bi taldeek osatzen dute jolas tailerra: adinaren arabera 6 eta 12 urte bitarteko bi talde osatzen dira. Astero bi saio eramaten dira aurrera eta bertan hiru arlo lantzen dira: euskara, eskola ikaskuntza eta gaitasun pertsonal eta soziala.

Udalak, programaren balorazio positiboa egin du, baita eskolak ere; umearen eraldaketa gaitasunean sinesten baitugu. Aurrerapausoak ikusten ditugu haurrengan eta gogoz gabiltza aurrera jarraitzeko. Datorren urtean ere programak martxan jarraituko du.



• Programa TALLERES DE JUEGOS

Este programa se basa en la premisa de que el juego es una herramienta para el desarrollo de diferentes capacidades, las cuales se pueden conseguir mediante la lengua, “el euskara”, la educación escolar y el desarrollo personal y social.

El programa, dirigido a niños y niñas de Deba, de entre 6 y 12 años y en situación de riesgo, se puso en marcha el curso 2013- 2014. En él han participado diversos organismos locales, en coordinación con los centros educativos y los servicios sociales del Ayuntamiento.

El taller lo han conformado dos grupos, según las edades, y se han realizado dos sesiones por semana. En ellas se han trabajado tres áreas: euskara, educación escolar y desarrollo de las capacidades personales y sociales.

Tanto el Ayuntamiento como los centros escolares han realizado una valoración muy positiva del programa, observándose importantes avances en los participantes, por lo que se prevé dar continuidad al programa en años sucesivos.

Itziarko Industrialdeari buruzko azterketa

Debako Udalak, Debegesa garapen agentziaren laguntzarekin eta herritarren partaidetzarekin, Debako Garapen Jasangarriko Ekintza Plana onartu zuen.

Plan horrek udalerriaren ikuspegi partekatua lortzeko proiektu estrategiko egokienak jasotzen ditu, besteak beste, Itziarko Industrialdean jarduera ekonomikoa indartzeko eta sustatzeko helburua duen egitasmoa. Egitasmo horri dagokionez, Planak jasotzen dituen neurrien artean daude, inbentario bat egitea (erabilerarik gabe dauden eraikinak identifikatzeko eta bertara berrikuntzarekin lotutako industria erakartzeko), seinalizazioa hobetzea eta urbanizazioa eta argiteria publikoa berritzeko lanak burutzea.

Dagoeneko lehen urratsak eman dira eta Udalak, Debegesak eta industrialdeko enpresetako ordezkariak osatutako lan-mahai bat jarri da martxan.

Mahai horrek proposatutako lehen pausoa, poligonoaren egoera urbanistikoa ezagutzea eta eguneratzea izango da. 2014ko uztailaren 17an, poligonoko batzarrak proposamena onartu zuen eta, ondorioz, Debegesari lan hau egitea enkargatu zitzaion.



ESTUDIO SOBRE EL POLÍGONO INDUSTRIAL DE ITZIAR

El Ayuntamiento de Deba, en colaboración con Debegesa y la participación ciudadana, ha elaborado el plan estratégico para el desarrollo del municipio. Este plan recoge diferentes proyectos estratégicos y estudios, entre ellos uno destinado a fortalecer la actividad económica y el desarrollo del polígono industrial de Itziar.

El estudio sobre el mismo toca aspectos como la realización de un inventario de industrias o la identificación de naves sin utilizar. El objetivo del plan es atraer y crear nuevas industrias, así como la mejora del polígono en lo que respecta a señalización, urbanización y alumbrado público.

Ya se han dado los primeros pasos mediante la formación de una mesa de trabajo entre representantes del Ayuntamiento, Debegesa y empresas del polígono. El primer trabajo ha sido encargar a Debegesa un estudio sobre la situación urbanística del polígono.

Deba ibaiaren estuarioa berreskuratzea helburu

Debako Udalak estuarioa interes handiko eremutzat hartu du eta, beraz, Deba eta Mutrikuko udalerriei dagozkien ibaiaren bi alboak berreskuratze eta balioan jartzeko asmoari ekin dio. Horretarako, Debegesa eskualdeko garapen agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, estuarioaren gaineko Plan Bereziaren Aurrerapena idazten ari da, inplikaturako pertsona eta entitate ezberdinen partaidetzarekin. Plan horrek ordenazio eta erabilera proposamenak jasoko ditu.

Ibaiaren estuarioa berreskuratze ekimenak ondorengo helburuak ditu:

- Deba eta Mutrikuko udalerrien arteko eta, oro har, Debabarreneko gainerako udalerriekin komunikazioa hobetzea.
- Ingurumenaren ikuspegitik, estuarioaren eta hondartzen babesa eta hobekuntza.
- Estuarioak eskaintzen dituen baliabideen aprobetxamendua, aisialdirako zein turismorako, hiritarrek gozatu ahal izateko.
- Dike, murru eta harri-lubetak luzatzeko, hobetzeko eta berreskuratze lanak abiaraztea.

Plan horren idazketa 2014ko abenduan amaiturik izatea aurreikusten da. Behin plan bereziaren aurrerapena idatzita, hurrengo pausoak adostuko dira.




PLAN DE RECUPERACIÓN DEL ESTUARIO DEL DEBA

Los ayuntamientos de Deba y Mutriku han tomado con gran interés la recuperación del estuario del río Deba, algo que afecta a ambos municipios.

Para ello, Debegesa, con la ayuda de la Diputación Foral de Gipuzkoa, está redactando el avance de un plan especial de desarrollo en el que participan numerosas personas y entidades.

Entre los objetivos del plan se encuentran la mejora de la comunicación peatonal entre ambos municipios y la comarca, la mejora de las playas situadas en ambas márgenes de la ría, y el aprovechamiento de las posibilidades que ofrece la zona del estuario en lo referente a ocio y turismo.

OSIO: Arau Subsidiarioen aldaketa zehatza



2009ko epaiaren eskakizuna aintzat hartuz, Udalak Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren proiektuari ekin dio, eta lan hau egiteko Udalak Luciano Pagaegi arkitektoaren zerbitzua kontratatu du, BEZ barne, 13.915 euroko kostea izango duena.

Bestalde, ingurumenari egingo dion eraginari buruzko txostena ere egin behar da, eta azterketa hau egiteko lana Haizea enpresari esleitu zaio (BEZ barne, 3.702,6 euroren-gatik).

Osiorako ezarritako irizpide eta helburuak ondorengo hauek dira:

- Gutxieneko eraikigarritasuna.
- Gutxieneko ingurumen-inpaktua.
- Auzoa herriaren erdigunean “integratzea”.
- Auzoaren bizi kalitatea handitzea.
- Bideragarritasun ekonomikoa.

Lurzoru urbanoa, urbanizagarria, zein ez urbanizagarriaren sailkapen proposamen bat garatu da eta bideragarria den auzo-antolamendu bat ere bai, honako ezaugarri hauekin:

- Sailkapen globala: Egoitzazkoa (residentziala).
- Eraiki daitekeen eremuaren azalera: 30.000 m² gutxi gorabehera.
- Eraikigarritasuna 0,7-0,9 m²/m² (R). Honek esan nahi du 250 eta 270 etxebizitza artean eraiki daitezkeela eta 270 izanez gero, 113 VPO (sozialak), 55 VPT (tasatu sozialak) eta 102 libreak liratzeko.
- Antolamenduaren barne eraketa, ondoan dituen Agirretxe-Osio eremuekin bide lotura eta sarrera/irteerako errotonda CN-634rekiko interkonexioan.
- Osio-Agirretxerako, eskoletarako eta kiroldegirako irisgarritasuna, elementu mekanikoen bidez (igogailua).
- Dotazio guneak, Sasiola dorrearen alboan eta erdiko espazio publikoan.
- Plaza-parkea sortzea antolamenduaren erdigunean, estalitako espazio batekin.
- Ubidea partzialki bistaratzea eta bere luzeran, zuhaitzez osatutako zumardia ipintzea.
- CN-634ren gainetik oinezko lotura, errekaaren pasealekuarekin.

Antolamendu proposamen honen nondik norakoak azaltzeko herritarren parte hartzea sustatu nahi izan da, horretarako hitzaldi informatiboak eginez, eta jende askok hartu du parte. Horretaz gain, Pleno Aretoan informazio erakusketa bat jarri da 10 egunetan zehar eta Udalaren webgunean ere informazioa eman da, herritarrek proiektuari buruzko iritzia eman edo ekarpenak egiteko askatasun osoz.

Programatutako bide orria jarraituz, urte hasieran, aldaketa proiektuari hasierako onarpena ematea aurreikusten da.

OSIO: Modificación puntual de las Normas Subsidiarias

Atendiendo al requerimiento de la sentencia de 2009, el Ayuntamiento ha emprendido el correspondiente proyecto de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias.

Para realizar este trabajo, se ha contratado el servicio del arquitecto Luciano Pagaegi, por una cantidad de 13.915 euros, IVA incluido.

El preceptivo Documento de Impacto Medioambiental ha sido adjudicado a la empresa Haizea, por una cantidad de 3.702,6 euros, IVA incluido.

Los criterios y objetivos de partida establecidos para Osio son los siguientes:

- Mínima edificabilidad.
- Mínimo impacto ambiental.
- “Integración” del barrio en el casco.
- Aumento de calidad del ámbito.
- Viabilidad económica del proyecto.

Se ha desarrollado una propuesta de clasificación de suelo urbano, urbanizable y no urbanizable, y un ejercicio de ordenación urbana viable, que recoge las siguientes características:

- Clasificación global: residencial.
- Techo edificable o superficie del ámbito, aprox. 30.000 m².
- Edificabilidad 0,7-0,9 m²/m² (R). Esto significa la posibilidad de construir entre 250 y 270 viviendas, de las cuales en el caso de 270 serían: 113 VPO (sociales), 55 VPT (tasadas sociales) y 102 libres.
- Vertebración interna de la ordenación y conexión (vial) con las áreas urbanas adyacentes Agirretxe-Osio, con resolución de rotonda de entrada y salida en la interconexión con la CN-634.
- Accesibilidad Osio-Agirretxe, escuelas y polideportivo a través de elementos mecánicos (ascensor).
- Obtención dotacional junto a la torre Sasiola y espacio público central.
- Creación de plaza-parque en el centro de la ordenación con espacios cubiertos.
- Descubrimiento parcial de la regata y creación de alameda arbolada a lo largo de la misma.
- Conexión peatonal elevada sobre la CN-634 con el paseo de ribera de la ría.

Para dar a conocer la propuesta desarrollada, se han celebrado charlas informativas, con una asistencia importante. Asimismo, se ha articulado una exposición de la propuesta en el salón de plenos, que junto a su incorporación a la página web del Ayuntamiento, han facilitado la participación de los vecinos/as con sus comentarios y aportaciones.

Siguiendo la hoja de ruta establecida, se prevé presentar esta modificación puntual de las normas de Osio para la aprobación inicial, a principios de año.



Debako Arte Eskolari buruzko hausnarketa-prozesua



Debako Udalak, Debako Arte Eskolaren inguruko hausnarketa-prozesua jarri du abian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Izan ere, 1981ean sortu zen Eskola, 1969an, Oteizak sortutako eskola esperimentalari segida emanez. Ospe handikoa izan da eta urte oparoak bizi izan ditu, baina, azken urteetan erreferentzialtasuna galtzen joan da.

Bestalde, Debako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu dugu, Debako Arte Eskolaren eraikinetako bat, Artelekun zegoen Arte grafikoen egoitza bihurtzea. Adostasun horren baitan, Foru Aldundiak 220.000 euroko laguntza onartu du obrarako; konkurtso publikoa eginik, Euskal XXI enpresari esleitu zaio eta obra martxan dago iada.

Obraren ondorioz, Helduentzako Hezkuntza Eskola (EPA), liburutegira aldatuko dugu; horrela, irisgarritasuna bermatu, herriarekiko gertutasuna eta liburutegiaren erabilera indartuz, zerbitzu hobeto bat eskainiko da.

Hori guztia dela eta, balioan jartzeko helburuarekin, Arte Eskolaren inguruko hausnarketa orokorra egiteko une ezin hobea dela uste dugu, bai Udalak, baita Aldundiak ere. Prozesuaren helburu orokorra hau da: **Arte Eskolaren ibilbidea aztertzea, egungo egoeraren diagnostikoa egitea eta Arte Eskolaren etorkizuneko izaera, ezaugarriak eta erabileraren oinarriak zehaztea.**

Hausnarketa-prozesua bideratzeko Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izango dugu eta 2014ko azarotik 2015eko urtarerara bitarteko prozesua izatea aurreikusten dugu.

Prozesuaren gidaritza eta jarraipena horretarako sortu den Talde Eragileak egingo du, zeinean Udaleko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Arte Eskolako ordezkariak parte hartzen duten, Elhuyar Aholkularitzako teknikariek batera.

Hausnarketa-prozesuan parte hartzeko Debako eta eskualdeko arte-eragileengana jo dugu. Prozesuaren abiapuntu gisa galdetegi bat bete dute eragileak eta ondoren, prozesuaren motorra den hausnarketa-taldea jarri da martxan.

Lehen bilera egin du hausnarketa-taldeak eta gaiaren inguruan dauden ikuspegi eta iritziak konpartitzen hasi gara. Bigarren bileran eskolaren izaera, xedea eta ikuspegia lantzen jarraituko dugu. Horren ondoren, Talde Eragileak, landutako proiektuaren bideragarritasuna aztertuko du eta azterketa horren berri emango da hausnarketa-taldearen hirugarren bileran.

Prozesuaren berri izango duzue, horretarako aurreikusitako komunikazio-ekintzen bidez.

PROCESO DE REFLEXIÓN SOBRE EL FUTURO DE LA ESCUELA DE ARTE

El Ayuntamiento de Deba y la Diputación Foral de Gipuzkoa han puesto en marcha un proceso de reflexión sobre el futuro del Centro de Enseñanzas Artesanales. El Centro debarra se creó en 1.981, dando continuidad a la Escuela Experimental de Arte, fundada por Jorge Oteiza en 1.969, y ha sido un importante referente en el campo de las enseñanzas artísticas.

El objetivo de este proceso de reflexión es la realización de un diagnóstico que pueda determinar el futuro del centro. Dicho proceso se está llevando a cabo con la colaboración de ELHUYAR, y cuenta con un grupo dinamizador y de opinión en el que toman parte, además del Ayuntamiento y la Diputación, diversas personas de la localidad y de la comarca.

Tras el acuerdo entre la Diputación Foral y el Ayuntamiento para el traslado al centro debarra de una parte del material de arte gráfico de Arteleku, el ente foral concedió una ayuda de 220.000 euros para las reformas del edificio (antigua EPA), donde se ubica la sección de grabado calcográfico del Centro de Enseñanzas Artesanales.

El Centro de Enseñanza para Adultos/as (EPA) se trasladará en breve a los locales de la Biblioteca Municipal, y con ello garantizará la accesibilidad, la cercanía al centro y un mayor uso de la biblioteca, mejorando el servicio a los/as usuarios/as del centro de adultos/as.

ITZIARKO KULTUR ASTEA

Itziarko Andutz Kultur Taldeak, bostgarren kultur astea ospatu zuen urriaren 14tik 19ra bitartean. Ekitaldi ezberdin ugarirekin egitaraua osatzeaz gain, herritarren parte hartzea eta auzolana sustatzea izan du helburu.

Denontzako onuragarria den zeozer burutzea edo gauzatzea ei delako auzolana.



KULTUR EKINTZAZ BETERIK


HERRI KULTURA EGITEN

Gure herriak duen aberastasun kulturala plazaratu, eta herritarrentzat eskaintza zabal bat egotea oso garrantzitsua da, kultura baloreen jarri eta eraldaketa sozialerako tresna izatea nahi badugu. Aurten, herriko elkarte ezberdinekin eta norbanako askoren laguntzarekin, herriko agenda kultural bateratua, koordinatua eta anitza helburu izango duenari ekin diogu, **tokian tokikoa bultzatuz**.

Ekainean hasi ginen, gure **nortasun eta tradizioei** begirako ekitaldiekin, San Juan sua eta zahagiekin; eta kostako herria izanda, udaran zehar gozamenerako aukera zabala izan dugu. Uztailean zehar, herri kirolak, zinea, antzerkia, dantza eta udako kontzertuak antolatu ziren musika klasikoa eta herriko ondarea uztartuz.



Abuztua heldu eta herriko festez gozatzeaz gain, aurten I. SURFIN-DEBA FESTA antolatu da, gure herriak **ur kiroletan duen potentziala eta aukerak** erakutsiz, ohikoak ez diren kirol extremoak eta musika uztartuz.




Abuztua bukatzeko, berriro, eta irailean zehar ere, **iturri-ondoko** egitarauarekin jarraitu genuen, **herritarren partehartzet nabarmenarekin**; BEGIRADAK herriko zenbait artisten eskutik, HITZ HOTSAK musikaz lagunduta literaturako pasarteak, JOKIN LASAren kontzertua, eta nahiz eta urrian izan KULUNKA dantza taldearen emanaldia.



Irailean **memoria historikoa** eginez, gure herriko Euskal Jaiaaren 50. urtemuga ospatu eta gogora ekarri dugu, hainbat ekimen ezberdinekin.

Esan bezala, udan ekitaldiz beteriko agenda bat izan dugu, non adin tarte guztientzat ekimen ugari eta ezberdinak izan ditugu udarari kolorea eta jai giroa emanaz.



Hala ere ez da udarara mugatuko, eta udazkenean ere ekimen ugari eta ezberdinak antolatu dira, neguari begirako hurrengoan aurrerapen gisa; musika, Beldur Barik lehiaketa, emakumeei zuzendutako ekimenak, erakusketak, ipuin kontaketak, bertso saioa, etab.



Baina badugu gure herrian, azken bi urteetan berrikuntza ugarirekin indarra hartzen ari den ekimena, **animaziozko zinea**, ANIMADEBA ZINEMALDIA hain zuzen ere, eta aurten ere neguko agendan erreferentzialtasuna lortze bidean, 5 eguneko egitarau ezin hobeagoarekin datorkigu.




Doctor Deseo

Mostrar en la calle la riqueza cultural de nuestro pueblo, y en consecuencia, ofrecer a la ciudadanía una amplia oferta, es un hecho de gran importancia como instrumento de transformación social. Este año, con la ayuda de diferentes entidades y de muchos particulares, se ha logrado una rica y variada agenda cultural municipal, con el claro objetivo de impulsar y dar a conocer el rico patrimonio del que disponemos.

SANTA ZEZILIA



MUSIKAZ BLAI
Santa Zezilia egunean



SOROZABAL PASEALEKUA

Gipuzkoako Itsasertzetako zerbitzu probintzialak eginiko obra: epeetan luzatu den arren, segurtasuna bermatuta, paseoa ireki da.

Argiteri publikoan hobekuntzak egiten



Eguzki energiarekin hornituko den instalakuntza berria martxan Lasturren.



Efizientzian hobetzeko inbertsioak Artzabalen.

Murriztu, berrerabili eta birziklatu




Hondakinen prebentziorako ekimenak izan dira abenduaren 13an, eta honekin batera beste auzokonpost gune bat martxan da. Iada 103 familia (288 pertsona) ari dira parte hartzen, eta 64 familia (166 pertsona) itxaron zerrendan daude. Ikastetxeekin ere lantzen jarraitzen da, eta oraingoan Itziarko haurrekin egin da saioa.

Etxeko hondakin handiak (altzariak...) ostegunero jasotzen dira, edukiontziak dauden leku guztietan. Hala ere, aldeztu aurretik mankomunitateari abisatu beharko diozue, **943 700 799** telefonoan, hondakinak non utziko dituzuen esateko.



Aurten Gabonetako argitegian Gaztelekua-ren partehartzearekin, berrerabilpena oinarri, apaingarri politak ditugu.



Lanbide

Deban enplegu zentroa daukagu astearte eta ostegunetan, 8:00etatik 15:00etara.

Informazio gehiago:

Udaleko gizarte zerbitzuan, tel.: 943 192 933

Eguneko zentroko taberna



Erabiltzaileei zerbitzu hobea eta erosoa emateko, eguneko zentroko tabernan obra txikiak egin dira eta lehiaketaren ondoren, laster, berriro irekita egongo da.



Ibilketa nordikoa (NW)

Deba, Nordic Walking, ibilketa nordikoko gune bihurtu zen 2013ko otsailean, Gipuzkoako 3. herria Donostia eta Zumaiarekin batera.

Aire libreko kirola, eta osasuna uztartzen dituen ibilketako teknika berria da, eta abendurako ikastaroak eskainiko dira. Ikastaroen informazioa udaleko kirol sailean edo gure web orrian aurkitu dezakezue.

IKASTARO AURRERATUA CURSO AVANZADO


Abenduak 28 Diciembre
Urtarrilak 3 de Enero
Ordua: 11:00-13:00

ASTE BUKAERAKO IRTEERAK SALIDAS FIN DE SEMANA

Urtarrilak 4, 25 de Enero
Ordua: 10:00-13:00

ASTEAN BEHIN IBILKETA CAMINATA 1 DÍA/SEMANA

Urtarrilak 7, 14, 21, 28 de Enero
Ordua: 19:00-20:00



Aparkalekuen proiektua

Udalak proiektua eta azterketa ekonomikoa egin du eta urte hasieran prozesu administratiboari ekitea aurreikusten da.

KULTUR GIDA

ABENDUA-URTARRILA

	Eguna	Ekintza	Tokia	Ordua
ABENDUA	24	Olentzero	Kaleetan zehar	12:30
	26-30	Anima Deba (ikus esku programa)		
	27	Jaiotza biziduna	Eliza	12:00
	29	Doctor Deseo	Plaza zaharra	22:30
	31	San Silvestre lasterketa	Foruen plaza	11:00-13:00
	31	Debako bandaren kontzertua	Eliza	13:00
URTARRILA	1-7	Idi probak (ikus esku programa)	Euskal Jolas	
	2	Gabonetako haur parkea	Aldats pilotalekua	11:00-13:30 16:00-19:00
	3	Urte Berriko feria		9:00-14:30
	4	Urrezko aizkora	Aldats pilotalekua	12:00
	4	Ipuin kontaketa	Agirre Jauregiko Ispiluen gela	17:00-19:15
	4	Bizar Zuri	Gurutze ermita	19:00
	5	Errege kabalgata	Kaleetan zehar	19:00
	20	San Sebastian jaiak	Elorriaga	



Egutegian azaldu
zaigunez azken orria,
urte zaharrari agur,
ongi etorri berria;
guztioi opa dizuet
zoriontasun irria,
baztertu ta zapalduei
elkartasun aldarria.
Espetxeratuok, berriz,
zain daukazute herria.
Urtarrilaren hamarra
Bilbon da zita jarria,
kolore anitzez josteko
SARE ikaragarria,
etxean ospa dezaten
hurrengo eguberria.



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia